



3. AGIRIA

“BILBAO BIZKAIA UR-PARTZUERGOAREN HORNIDURA- LABORATEGIAN LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEA HORNIDURA-SISTEMETAKO URAREN OSASUN-PLANAK SORTZEKO, EKUIS-EN INFORMAZIOA KUDEATZEKO ETA OSASUN-SAILAREKIN JARDUKETAK KOORDINATZEKO”

BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN PLEGUA



1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea laguntza tekniko bat ematea da. Laguntza horren bitartez, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren (BBUP) hornidura-laboretegia lagunduko da BBUPk kudeatzen dituen udalerrietako hornidura-sistemetan Uraren Osasun Planak (UOP) egin daitezen; horretarako, Kontrolatzeko eta Zaintzeko Unitatea (KZU) egongo da: 40 hornidura-sistemei dagozkien 40 agiri inguru dira eta 90 udalerri barne hartzen dira gutxi gorabehera.

Kontratu honetako lanak 178/2002 Dekretuan, 3/2023 Errege Dekretuan eta hornidura-zona batean uraren osasun-plana egiteko gida praktikoa adierazitako zuzentzarauetan oinarrituta egingo dira. I. liburukia. Ebaluazio erdi kuantitatiboa. Osasun Ministerioa.

Kontratu honetako laguntza teknikoan lan hauek egingo dira:

- UOP egitea 178/2002 Dekretuan, 3/2023 Errege Dekretuan eta hornidura-zona batean uraren osasun-plana egiteko gida praktikoa adierazitako zuzentzarauetan oinarrituta. I. liburukia. Ebaluazio erdi kuantitatiboa. Osasun Ministerioa. Agiri honen 2. puntuaren dokumentu horiek izan behar duten gutxienezko edukia xehatu da.
- Hornidura-zonetako laginketa-programak egitea eta mantentzea, 3/2023 EDren maiztasun-baldintzei egokituta.
- Osasun-agintaritzak egindako auditoretzekin edo ikuskaritzekin lotutako informazioaren parte bat kudeatzea (datuak biltzea, txostenak artxibatzea, eskatutako informazioa partekatzea...).
- BBUPren beste sail batzuekin aktiboki koordinatuta egotea programetan sartzeko informazioa jasotzeko, antolatze, sailkatze eta agirietan integratzeko.
- Eusko Jaurlaritzaren EKUIS aplikazioa erabiltzea laginketa-puntuak eta BBUPren egiturak eta trazabilitatea, metodo analitikoaren ziurgabetasunak eta abar eguneratuta mantentzeko eta beharrezkoa den informazio guztia UOPn integratzea.
- Osasun-sarearen kontrolaren parte diren eta Labware LIMS softwarean integratuta dauden laginketa-puntuetako datu-baseak mantentzea eta hileko laginketa-programak prestatzea, 3/2023 EDk markatzen dituen laginketa-maiztasunak betetzeko.

Puntu horien inguruko argibide xeheagoak eman dira “2. puntuaren. - Kontratua betetzean gauzatu beharreko lanak”.

2. KONTRATUA BETETZEKO EGIN BEHAR DIREN LANAK

Aurrekariak



Historikoki, ura kontsumitzeak osasunean sor ditzakeen arriskuak zaintzeko oinarri nagusia erkoizitako uraren kalitatea analizatzea eta parametro-balio batzuk (edo gida-balioak) betetzen direla kontrolatzea izan da. Hala eta guztiz ere, analisi-zainketa egitea beti garrantzitsua den arren, kontrol- eta kudeaketa-programen helburua izan behar da lehendabizi arriskuak prebenitzea; hau da, horniduran kutsadura-gertakariak jazotzea ekiditea.

Kontsumitzeko uraren kalitatea eta bere zaintza araudian erregulatuta daude. 3/2023 Errege Dekretuak kontsumo-uraren kalitate-baldintzak eta gutxienezko zainketak ezartzen ditu. Beste alde batetik, uztailaren 16ko 178/2002 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) kontsumo publikoko uren kontrol-, zaintza-, eta informazio-sistema arautzen du.

“UOPak egitea” lanaren xehetasuna

UOPak egiteko 178/2002 Dekretuan, 3/2023 Errege Dekretuan eta osasun-gidan adierazitako jarraibideak beteko dira. Laguntza teknikoak egindako UOPek gutxienez informazio hau izan beharko dute:

1. Hornidura-zonako sistema analizatzea eta ebaluatzea

1.1. Hornidura-sistema analizatzea

- Horniduran ardurak dituztenak identifikatzea, bai kontrolean, kudeaketan zein tratamenduan.
- Hornidura-zonaren uraren tratamendu- eta banaketa-eskema egitea, ur-bilketetatik kontsumitzailearenganaino.

Uraren tratamendu- eta banaketa-eskeman beharrezkoa da hornidura-zonako elementu guztiak identifikatzea eta kokatzea. Planoak DIN A3 formatuan egin beharko dira eta sarearen egitura eta instalazio guztiak (biltegiak, ponpaketak...) sartuko dira ezaugarri guztiekin (biztanleria-nukleoa, hornitzen den biztanleria guztia, biltegien bolumena, egunero banatzen den uraren batez besteko bolumena...). Izenek bat etorri behar dute EKUISen izenekin.

Azpiegitura bakoitzerako informazio hau gehitu beharko da:

- a) Uraren jatorria: ur-masa, izena eta kodea, konfederazio hidrografikoa eta presioak ur-bilketan;
- b) Ur-bilketa: izena eta eskema, bilketa-mota, bildutako ur-bolumena (hm3/urtean), operadorea eta arro hidrografikoaren emakida;
- c) Hoditeria: uraren jatorria eta helmuga, eskema, luzera km-tan, hoditeria-mota, presioak hoditerian eta operadorea;
- d) Tratamendu-instalazioa (EUT): uraren jatorria eta helmuga, izena eta eskema, tratamenduaren prozesu unitarioak, tratatutako ur-bolumena (m3/egunean), ura edateko ur bihurtzeko erabiltzen diren substantzia kimikoak eta 3/2023 EDren 43. artikulua betetzeari buruzko dokumentazioa.
- e) Tratamendua biltegian edo banaketa-sarean edo beste azpiegitura batean: uraren jatorria eta helmuga, eskema, tratamenduko prozesu unitarioak, tratatutako ur-bolumena (m3/egunean), tratamenduan erabilitako substantzia



kimikoak eta operadorea;

f) Biltegia, uraren jatorria eta helmuga, izena eta eskema, biltegi-mota, gordetako ur-bolumena (m³), estaldura-materiala, azken garbiketa egin zen eguna eta operadorea;

g) Banaketa-sarea, uraren jatorria, izena eta eskema, sare-mota, banatutako ur-bolumena (m³/egunean), hodian konposizioa eta instalatutako km-ak material-motaren arabera, operadorea eta hornitutako udalerriak (EINen izenen arabera);

h) Andela: uraren jatorria, eskema, andel-mota, garraiatutako ur-bolumena (m³), estaldura-materiala eta operadorea;

i) Atal honetan aipatutako aurreko datuez gain, azpiegitura bakoitzean deskribapen-informazio guztia adieraziko da (kokapena, laginketa-puntuak, eraikuntza eta/edo birmoldaketa-egunak, babes-neurriak, etab.).

Hornidura-zonako azpiegituretan edo ur-fluxuetan aldaketa handiak egitea aurreikusita badago, atal honetan zehaztu beharko dira (biltegi berriak, beste hornidura-zona batera sartzea, sarea zabaltzea, etab.). Hala, noiz egitea aurreikusi den eta martxan noiz jarriko den ere adieraziko da.

1.2. Uraren kalitatea baloratzea

- Sarean dauden datu historikoak jasotzea jatorri-urari buruz eta hornitutako uraren datuak jasotzea.

- Aztertutako sarean gertatu diren ez-adostasunak identifikatzea eta baloratzea.

Azpiegitura bakoitzerako adierazi beharko dira azken 5 urteetako emaitza analitikoaren datuak parametro bakoitzeko: urtea, zehaztapen-kopurua, batez besteko, gutxieneko eta gehieneko balio kuantifikatuak, desbideratze estandarra eta adostasunik gabeko zehaztapen-kopurua.

Datu historikoak berrikustek aztertutako sarearen arriskuak identifikatzeko balio du. Ur-bilketen analisien, ur gordinaren eta tratatutako uraren emaitzak berrikustea.

Uraren kalitatearen eta aurreko urteetan detektatutako ez adostasunen arrazoen laburpena egin beharko da. Grafikoak erabiltzeak arazoak detektatzen eta joera ezagutzen laguntzen du.

1.3. Arriskuak identifikatzea eta ebaluatzea

- Hornidura-sistemaren osagaietan arrisku eta gertakari arriskutsu posibleak identifikatzea.

- Identifikatutako arrisku guztien arrisku-maila kalkulatzeko eta lehentasunak ezartzea.

Hornidura baten arriskuak modu eraginkorrean aztertzeke arrisku potentzial guztiak jatorrian identifikatu behar dira eta gero bakoitzaren arrisku-maila baloratu behar da.

Oinarrizko UOPn metodo erdi kuantitatibo bat aplikatzen da. Horrenbestez, arriskuaren larritasuna eta neurri zuzentzaileak edo prebentzio-neurriak aplikatuko ez balira gertaera arriskutsua jazotzearen probabilitatea baloratu behar dira. Arriskuen ebaluazioa zabaltu behar da eta, horretarako, metodo kuantitatibo bat aplikatzen da.



Aztertutako sistemaren osagai bakoitzean arrisku eta gertakari arriskutsu posibleak identifikatu beharko dira. Aztertutako sisteman identifikatutako gertakari guztien arrisku-maila kalkulatu da eta jarduteko lehentasunak ezarri dira. Uraren kalitatean eragin dezaketen arrisku asko dauden arren, guztiek ez dute behar arreta-maila berbera. Fase horretan prebentzio-neurririk aplikatzen ez deneko arriskuak baloratu behar dira. Balorazio hori egitea garrantzitsua da arriskuak identifikatzeko.

Arriskua ebaluatzeko komeni da taula hauek erabiltzea. Arriskuen ezaugarrien arabera probabilitate- eta larritasun-mailak ezartzen dituzte:

Arriskuen larritasun-maila

	Balio a	Parametroak
Hutsala	1	I. eranskinen D zatiko parametroen balio parametrikoa gainditzea.
Arina	2	I. eranskinen C zatiko parametroen balio parametrikoa gainditzea, uhertasuna salbu.
Ertaina	4	Uhertasunaren balio parametrikoa gainditzea; B zatiko parametroak, balio parametrikoren azpiko beste maila batean ez daudenak eta egokitasun ezaren balioaren gainetik dauden C zatiko parametroak.
Larria	8	I. eranskinen B zatiko parametroak, epe luzean osasunean eragiten duten substantziak dituztenak eta balio parametrikoren gainetik daudenak; I. eranskinen E zatiko parametroen balio parametrikoa gainditzea; 24-48 ordutan ura faltatzea.
Oso larria	16	I. eranskinen B zatiko parametroak, epe motzean osasunean eragiten duten substantziak direnak eta ugalketarako kartzinogenoak, mutagenoak edo toxikoak izatea edo nahasteile endokrino gisa edo ingurumeneko arriskutsu moduan identifikatuak egotea eta 1272/2008 EBren erregelamenduen arabera balio parametrikoren gainetik egotea. I. eranskinen A zatiko parametroak; Ura modu jarraituan faltatzea (48 ordu baino gehiago).

Probabilitate-maila

	Balio a	4., 5., edo 6. motako hornidura-zonarako	3., 2., edo 1. motako hornidura-zonarako
Oso nekez gertatzekoa	1	Azken 5 urteetan behin gertatu da.	Azken 10 urteetan behin gertatu da.
Nekez gertatzekoa.	2	Azken 2 urteetan behin gertatu da.	Azken 5 urteetan behin gertatu da.
Ertaina.	4	Urtean behin gertatzen da.	Azken 3 urteetan behin gertatu da.
Gertagarria.	8	Urtean 1-4 aldiz gertatzen da.	Azken 2 urteetan behin gertatu da.
Oso gertagarria.	16	Urtean 4 aldiz baino gehiagotan gertatzen da.	Azken urtean gertatu da.

Arriskua lehenesteko balorazio-matrizea



		Larritasuna				
		Hutsala	Arina	Ertaina	Larria	Oso larria
Probabilitatea	Oso nekez gertatzekoa.	1	2	4	8	16
	Nekez gertatzekoa.	2	4	8	16	32
	Ertaina.	4	8	16	32	64
	Gertagarria.	8	16	32	64	128
	Oso gertagarria.	16	32	64	128	256

32, 64, 128 edo 256ko balorazioa duten gertakari guztiak hornidura-guneko puntu kritikoak izango dira.

Puntu kritiko horietan hauek baloratu behar dira:

- Ezarritako neurri zuzentzaile edo prebentiborik ote dagoen eta ez balego, ezarri egin beharko dira.
- Neurri horiek eraginkorrak diren ala ez.
- Ea hornidura-gunean arrisku hori murrizten den geroago oztopoak daudelako. Hala balitz, balorazioaren puntuazioa jaitsi egingo da; arriskua gutxitzen bada, 4rekin zatikatuko da eta arriskua desagertzen bada, 8rekin zatikatuko da.

2, 4, 8 edo 16ko balorazioa duten gertaerak ez dira puntu kritikoak izango eta kontrol-puntuak izango dira, gertaera arriskutsu gertagarria baitago. c) puntuan deskribatutakoa gertatzen denean eta puntuazioa 32tik behera jaisten denean, puntu kritikoa kontrol-puntu bihurtuko da.

Arriskuak ezagututa, lehenetsita eta puntu kritikoak eta kontrol-puntuak identifikatu eta gero, arriskuak arindu beharko dira beharrezkoa balitz berehalako neurriak ezarri edo neurri zuzentzaileak edo prebentiboak ezarriko dira, gertaera arriskutsua berriro jazo ez dadin. Neurri horiek ahalik eta azkarren aplikatu behar dira.

Arriskuen jarraipena egiteko kontrol-programa bat ere ezarri beharko da.

2. Uraren kalitatea kudeatzeko prebentzio-neurriak

Atal horretan hornidura-guneko arriskuak kontrolatzeko prebentzio-neurriak identifikatu eta baloratu behar dira. Prebentzio-neurriak dira arriskuak ekiditeko edo arriskuak maila onargarrietara murrizteko ekintzak, jarduerak edo prozesuak. Prebentzio-neurri guztiak garrantzitsuak dira eta etengabeko arreta behar dute. Hala eta guztiz ere, batzuek arriskuak nabarmenki ekidin edo murriztu ditzakete eta beste batzuek baino kontrol operatibo handiagoa merezi dute. Neurri horiek kontrol-puntu kritikotzat (KPK) jo daitezke.

2.1. Prebentzio-neurriak



- Arrisku-maila ertaina, handia eta oso handia (arrisku garrantzitsuak) duten identifikatutako arriskueterako aztertutako sareko prebentzio-neurriak identifikatzea.

- Arrisku bakoitzaren arrisku-maila kalkulatzea prebentzio-neurriak aplikatuta daudela (hondar-arriskua).

Prebentzio-neurri tradizionalak askotariko oztopo-multzo moduan edo multzo horren barnean sartzen dira baliabide hidrikoak babesteari, hargune-puntuak babesteari, tratamenduari eta banaketa-sistemari dagokienez. Oztopo-motak eta beharrezko prebentzio-neurriak uraren jatorriaren ezaugarrien eta hargune-inguruaren araberakoak dira. Prebentzio-neurriak hautatzeko oinarria arriskuen identifikazioa eta ebaluazioa izan behar da. Kasu bakoitzean proposatutako prebentzio-neurria aplikatu ondorengo hondar-arriskua aztertu beharko da.

2.2. Kontrol Puntu Kritikoak (KPK)

- Kontrol-puntu kritikoak identifikatu beharko dira.

- Puntu kritiko bakoitzerako muga kritikoak definitu beharko dira.

Neurtu daitezkeen parametro operatiboak egon beharko dira eta horietarako jarduketaren efikazia definitzen duten muga kritikoak ezarri ahalgo dira.

Parametro operatiboak behar besteko maiztasunarekin monitorizatu beharko dira, horrela, edozein akats garaiz detektatzeko (etengabeko monitorizazioa eta ahal dela, online).

3. Kontrol Puntu Kritikoak (KPKak) zaintzea

Beharrezkoa da prozesua kontrolatzeko prozedurak edo protokoloak diseinatzea, hala, prebentzio-neurriak eraginkorrak izan daitezen. Atal hau muga kritikoak gainditzen direnean ezarri behar diren zuzenketa-ekintzei bideratuta dago.

3.1. KPKak zaintzea

- Definitutako KPKetarako zaintza-prozesuak planifikatzea.

- KPKen jarraipena egiteko protokoloak sortzea.

KPKak zaintzea ezinbestekoa da monitorizazio operatiboan (erraz neurtu daitezkeen parametro-neurketak eta -behaketak), modu horretan, prebentzio-neurrien funtzionamendua egiaztatzeko. KPKen zaintza-maiztasunarekin posible izan beharko da muga kritikoa gainditu denean osasun publikorako arriskua bihurtu baino lehen detektatzea. Parametro operatiboak maiz edo etengabe neurtu behar dira.

Monitorizazio operatiboaren efikazia handitzeko moduetako bat muga operatiboak muga kritikoen azpitik ezartzea da; muga operatiboak gainditzen direnean abisu bat sortzen da, baina ez da horniduraren arazorik irekitzen. Kontrara, muga kritikoak gainditzen direnean arazoa irekitzen da.

Protokoloak argiak eta langileek ulertzeko modukoak izan behar dira. KPKen kontrolak nork, nola, noiz eta non egingo dituen eta emaitzak non erregistratuko diren jaso beharko da.

3.2. KPKen kontroletik eratorritako neurri zuzentzaileak



-Monitorizazio operatiboan arrisku kritikoa gainditzen denean jarraitu beharreko prozedurak.

Arrisku kritikoa gainditzeak esan nahi du prozesuaren kontrola galdu dela eta berreskuratzeko neurri zuzentzaileak ezarri behar direla. Muga kritiko bat gainditzen denean ezarri beharreko prozedura bat garatuko da. Prozedura horretan, gutxienez, horniduraren kontrola berreskuratzeko neurriak, kontrolik gabe ekoiztutako urarekin nola jardun, Osasun Publikora arazoa komunikatzea eta jarduketaren erregistroa jaso beharko dira.

4. Uraren kalitatea egiaztatzea

Egiaztapen hori egindako analitiketako datuetan oinarritzen da; azken egiaztapena izango da oztopoek eta prebentzio-neurriek zuzen funtzionatzen dutela.

4.1. Uraren analisia

- Analisi-laborategiak identifikatzea eta egiaztatzea.
- Laginketa-plangintza egitea.

Kontrol analitikoa egiteko ardura duen laborategia zuzen identifikatuta egon beharko da, egiaztapen-mailarekin eta EKUIS sisteman altan emateko datu guztiekin.

Laginketa analitikoko plana idatzi beharko da eta plan horrek 3/2023 EDko zuzentarauak bete beharko ditu. Hala, analisi-mota, laginketa-puntuak eta laginak hartzeko maiztasunak jaso beharko dira.

4.2. Emaizta analitikoak baloratzea

- Prozedura bat egon beharko da uraren kalitatearen analisietan eskuratutako emaitzak berehala komunikatu eta berrikusteko.
- Argi ezarri beharko da laborategiak nola komunikatuko dituen datu analitikoak eta premia berezia izango dute bat ez datozen emaitzek. Emaitzak eskuragarri egon bezain laster baloratuko dira. Analitikak eta emaitzak baloratzeko 3/2023 EDko zuzentarauak jarraitu behar dira (aplikatzekoa bada), baita ere kontsumo-uren osasun-zaintzarako programen gida.


4.3. Kontsumitzaileak pozik egotea

Kontsumitzaileen kexei erantzuteko eta kexak erregistratzeko sistema bat ezarri beharko da. Kexa horiek hornidura-sarean detektatu ez diren arazo potentzialen inguruko informazio-iturri baliotsua izan daitezke.

5. Intzidentziak eta desadostasunak daudenean nola jokatu

- Intzidentziak eta desadostasunak daudenean osasun-zentroei, udaletxeei eta horniduren titularrei komunikatzeko eta jarduteko prozedurak ezarri beharko dira.

- Argi eta garbi definitu beharko da intzidentziak EKUISen zein maiztasunekin grabatuko diren.



6. Laguntza-planak

6.1. Instalazioetan mantentze-lanak egitea

- Dagokion maiztasunarekin eta kronogramarekin definituko dira aztertutako zonako instalazioen mantentze-, egiaztapen-, eta garbiketa-lanak.
 - Egindako lanak idatziz jasota geratzeko erregistroak definituko dira.
 - Akatsak detektatzen direnean jarduteko prozedurak sortzea.
 - Egiaztatzea soilik baimendutako produktuak eta materialak erabiltzen direla.
- Egiaztapen-, garbiketa-, eta mantentze-lanen maiztasuna KZU bakoitzerako proposatutako instalazioen egoeraren eta babes-sistemen arabera izango dira. Beharrezkoa izango da gutxienez urtean behin instalazio guztietako osasun-baldintzak berrikustea. Baimendutako KZU bat baino gehiago dituzten hornidura-zonetan bakoitzaren programan bere erantzukizunpean dauden instalazioak sartuko dira.
- Idatziz jasoko dira aipatutako ekintzekin lotuta jarraitu beharreko prozedurak eta kronograma. Egindako operazioak erregistratzeko modua jasoko da eta debideratzeak nola kudeatu eta erregistratu adieraziko da.
- Funtzionamenduaz eta hornidura-egoeraz gain, aldi-aldi ura edangarri bihurtzeko erabilitako substantziak eta materialak egiaztatuko dira.

6.2. Ekipoak kalibratzeko plana

- Tresnak kalibratzeko eta egiaztatze plan bat egongo da, monitorizazio-ekipoak barne.



6.3. Langileen prestakuntza

- Langileek lanposturako kualifikazioa eta esperientzia izan beharko dituzte.
- Prestakuntza-beharrak identifikatuko dira prestakuntza ematen denean.

7. Inbertsioa eta epeak

- Xehatutako inbertsio-plana
- Lan-kronograma

8. Dokumentazioa eta informazioa komunikatzea

7.1. EKUIS sistema mantentzea

- EKUIS kudeatuko duen KZUko arduradunaren izena eta kontaktua adieraziko dira.
- Gutxienez urtean behin azpiegituretako datuak berrikusiko dira eta horniduran aldaketak dauden bakoitzean eguneratuko dira. Analisi-laboregietan gauza bera aplikatuko da.
- Gutxienez astean behin kargatuko dira datu analitikoak EKUISen.
- Intzidentziak betetzearen maiztasuna adieraziko da.

7.2. Dokumentuak kudeatzea eta erregistroak

Dokumentazio egokia izatea kontsumitzeko uraren kalitatea kudeatzeko sistemen oinarria da. Horrekin, lanaren sistematika zuzena dela eta programa eraginkorki ezartzen dela frogatzen da eta ikuskaritzak eta auditoretzak errazten dira.

- Erregistro-sistemak ezarri beharko dira eta langileentzat eta osasun-agintaritzarentzat eskuragarriak izan beharko dira. Hauen ingurukoak izango dira: puntu kritikoak, muga kritikoak gainditzea, neurri zuzentzaileak, erantzuna kontsumitzaileei, mantentze-lanak, instalazioak eta kalibrazioak egiaztatzea, uraren analisiak eta intzidentziak.
- Langileei prestakuntza ematea erregistro horiek zuzen erabiltzeko.

8. Auditoretzak eta ebaluazioak

Sistemaren funtzionamenduaren auditoretza eta epe luzean uraren kalitatearen emaitzak ebaluatzea beharrezkoa da zehazteko ea aplikatutako prebentzio-estrategia zuzen gauzatzen ari den eta eraginkorra ote den.

8.1. Sistemaren funtzionamenduaren auditoretza

Auditoretza bat jarduerak eta prozesuak sistematikoki ebaluatzea da, ikusteko ea programatuta dagoenarekin bat etorritik gauzatzen ari diren. Erregistroak eta dokumentazioa ongi kudeatzen badira auditoretza zuzena egin ahalko da. Programan egiaztapenak egiteko frekuentzia eta eskema, egiaztapenak egiteko arduradunak, non eta nola erregistratuko diren eta KZUren barneko txostenaren hartzaileak jaso beharko dira.

8.2. Emaitzak epe luzean ebaluatzea

Monitorizazio-emaitzak epe luzean sistematikoki berrikustea beharrezkoa da



kontrolaren funtzionamendu orokorra ebaluatzeko eta arazoak eta joerak identifikatzeko. Programan emaitzen urteko ebaluazioa jaso beharko da. KZUren arduraduna eta jasotzaileak definituko dira. Kopia bat osasun publikoko eskualde-zentrora bidali beharko da. Ebaluazioan gutxienez urteko adierazle hauek jasoko dira:

- a- Kontrol Puntu Kritikoetan urtean gainditutako muga kritikoak.
- b- Banatutako uraren sailkapena (ona, onargarria edo txarra).
- c- Ura edateko ona izatean gertatu diren aldaketak, intzidentzia- edo alerta-kopurua eta kaltetutakoen kopurua.
- d- Hornidura-egituraren egoera ebaluatzea (ona, hobetu beharrekoa edo oso txarra).

Gainerako lanen xehetasuna

Kontratuaren arduradunak bilerak egingo ditu aldizka kontratistaren ordezkariarekin kontratuaren jarraipena egiteko. Bilera horietan hilean egingo diren lanak planifikatuko dira. Planifikatutako lanen barnean sartuko dira, beharrezkoa denean, “1. puntua.- Kontratuaren xedea” atalean jasotako eginkizunak edo lanak, adibidez, hauek: Eusko Jaurlaritzaren EKUIS aplikazioan laginketa-puntuak eta BBUPren egiturak eguneratzea, horien trazabilitatea edo osasun-sarearen kontrolaren parte diren laginketa-puntuetako datu-basea mantentzea; Labware LIMS laborategiko softwarean integratuta daude.

Aparteko beste lan batzuk

Kontratuak irauten duen hilabeteetan zehar lan-puntak sor daitezke nagusiki UOPak prestatzeko. Horretarako, beharrezkoa da Osasun Sailera bidali baino lehen dokumentazio asko prestatzea eta epeak betetzea. Hori dela-eta, kontratu honetan ere ezartzen da zenbat ordutan joan behar den lanera ohiz kanpo, prestasun handiagoa eskatzen duten eta ohikoak ez diren bestelako lanei aurre egin ahal izateko. Ordu horiek behar bezala justifikatu beharko dira adjudikaziodunak aurkeztutako hileko zerrenda baloratuetan. Lizitazio honetako administrazio-klausulen agirian aparteko zenbat laguntza-ordu beharko diren adierazten da.

3. KONTRATUA BETETZEKO GIZA BALIABIDEAK ETA BALDINTZA TEKNIKOAK

3.1. Kontratuan eskuragarri jarritako giza baliabideak

Lizitatzailleek egiaztatutako esperientziadun lantalde bat eskaini beharko dute, kontratua sinatzen denetik aurrera lanak hasteko behar bezain koordinatua eta prestatua dagoena. Horretarako, adjudikaziodunak kontratistaren ORDEZKARI bat izendatu beharko du eta berak kudeatuko ditu kontratu honetarako giza baliabideak eta baliabide teknikoak. Ordezkariak antzeko lanak egiten duen esperientzia baloratuko da.

Lantaldearen hasierako eraketa eskaintzan adieraziko du kontratistak eta kideen historial profesionala adieraziko du. Hala ere, lanak egiteko gutxienez langile hauek ezarriko dira:



- Goi-mailako unibertsitate-titulazioa duen teknikari bat. Ezagutzak izan beharko ditu biologian, kimikan, farmazian, ingurumen-zientzietan edo antzekoetan eta lanaldi osoan lan egingo du. Proposatutako pertsonak gai horretan esperientzia duela egiaztatu beharko du.

Adjudikaziodunak bermatu behar du teknikari horrek kontratuan prestasun eksklusiboa eta osoa izango duela eta gutxienez beharrezko esperientzia eta prestakuntza dituela. Kontratuari esleitutako teknikaria aldatzea beharrezkoa izango balitz, proposatutako pertsona berriak prestakuntza- eta esperientzia-baldintzak bete beharko ditu. Aldaketa hori kontratuaren zuzendariari jakinaraziko zaio zerbitzua ez kaltetzeko behar besteko aurrerapenarekin.

Kontratistaren ordezkaria izango da enpresa adjudikaziodunaren eta partzuergoaren arteko solaskidea. Era berean, behar diren kontsultak eta lanak egingo ditu, agindutako lanetan sortzen diren zalantzak eta arazoak konpontzeko.

Kontratu hau betetzeko proposatutako teknikariak lana telematikoki egin ahalko du, baina batzuetan baliteke beharrezkoa izatea hornidura-laboregira joatea bileretan parte hartzeko edo egindako lanen jarraipena egiteko.

Kontratu honetara esleitutako teknikariaren behin betiko ordutegia adjudikaziodunarekin zehaztuko da kontratua hasten denean eta langileen hitzarmen kolektiboko ordutegia beteko du.

- Langileak ordezkatzeko

Kontratua betetzen den bitartean, proposatutako lantaldea aldatzeko aukera egongo da, premiazkoa izanik eta behar bezala justifikatuta betiere; nolahi ere, agiri honetan eskatutako titulazioa, gutxieneko esperientzia eta gaitasuna izan beharko dute langile berriek, eta kontratuaren arduradunaren oniritzia beharko da.

Kontratuaren Zuzendaritzak beretzat gordetzen du ohiko lantaldeko edozein pertsonaren ordezkapena eskatzeko eskubidea, aurretiaz idazki bidez justifikatuta, nola haien gaitasun-falta agerian geratzen delako, hala agiri honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez delako, edo ez delako egokitzen ekipoaren funtzionamendura eta/edo lan-dinamikara, eta horrek zerbitzua behar bezala ematea eragozten duelako. Adjudikaziodunak behar diren aldaketak egin beharko ditu, behar izanez gero, behar bezain azkar, laguntzari jarraipena emateko eta zerbitzua eten ez dadin.

Laneko bajen kasuan, enpresa adjudikaziodunak langile hori ordeztu beharko du baja 10 egun naturaletik gorakoa denean. Ordezkatutako pertsonari esleitutako lanak egiteko titulu eta gaitasun tekniko bera duen langile batek egingo du ordezkapena.

3.2. Kontratuaren eskura jartzen diren bitarteko teknikoak

Adjudikaziodunak bere kargura eman beharko ditu bere funtzioa betetzeko bitarteko teknikoak eta teknologikoak. Zehazki, kontratua betetzeko eskuragarri jarri beharko dira ordenagailu eramangarri bat eta bulego-materiala. Ekipamendu informatikoa BBUPren sarean integratu beharko da eta ekipo hori ezingo da enpresaren beste domeinu batean integratu. Horrenbestez, adjudikaziodunak entregatzen duen ordenagailua bakarrik BBUPn



zerbitzuak emateko erabiliko da.

BBUPren Informatikako Zuzendariordetzak hornitutako modeloak onetsi beharko ditu BBUPren sarera konektatu baino lehen. Orientazio moduan, kontratu honetan erabiltzeko ordenagailu eramangarriak gutxieneko baldintza hauek bete beharko ditu:

Hp Elite Book 660 G11 edo antzekoa

Intel i5, 12. belaunaldikoa

16Gb Ram memorian

Diskoa: SSD 512 GB

15" Full Hd

Ethernet txartela ordenagailu mugikorraren gorputzean integratuta (ez dongle USBa)

Sistema eragilea: Windows 11 Profesional 24H2

Suite ofimatikoa: Office 2024 LCTS edo Office 365

Lizentziadun beste software bat, ATko langileek behar dutena: Adobe Acrobat 2025... etab.

Edonola ere, kontratua adjudikatu eta gero BBUPren informatika-zerbitzuak ordenagailu eramangarriaren jarraibideak eman ahalko ditu beharrezkoa bada. Ekipo informatikoa onesten denean eta BBUPren sarera konektatzen denean BBUPren informatika-zerbitzuek administratu eta kudeatuko dituzte beharrezkotzat jotzen diren segurtasun-neurriak ezartzeko. Horien artean egongo da enpresaren antibirusa instalatzea. Ekipoan sor daitezkeen matxuretarako mantentze-lanak egitea adjudikaziodunaren ardura izango da.

Laguntza-zerbitzura atxikitako langileek ere datu-txartela duen telefono mugikor bat izan beharko dute, une oro partzuergoko langileekin konektatuta eta lanaldian aurkitzeko moduan egoteko.

Kontratistaren ordezkariak aldian-aldian ikuskatuko du bere langileen eskura jarri beharreko baliabide guztiak egokiak direla, eta, gutxienez hiru hilean behin, langileekin aurrez aurre edo birtualki (Skype, Teams, Zoom, etab.) bilduko da, arestian aipatutako baldintza guztiak betetzen direla egiaztatze aldera.

4. BERTARATUTAKO LANGILEENTZAKO PRESTAKUNTZA-JARDUERAK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Lana indarrean dauden lege-eskakizunen arabera egiteko, gomendagarria izango da prestakuntza-ikastaroak egitea kontratuak irauten duen 2 urteetan, eguneratuta egoteko. Enpresa adjudikaziodunak proposatzen dituen ikastaroen edukiak zerikusia izango du laguntza horren xedearekin eta edukiarekin.

Enpresa adjudikaziodunak kontratuan jarritako langileei eskaintzen dizkien prestakuntza-ikastaroak baloratzeko, lizitazio honetako administrazio-klausulen agirian jasotako eskaintzen balorazioaren atalean agertzen den puntuazioa erabiliko da. Proposatutako ikastaroen edukia eta kopurua, laguntza-zerbitzuan egin beharreko ataza nagusiekin duten lotura, ikastaroen modalitatea, ikastaroaren antolatzailea eta abar baloratuko dira, baita ikastaro horien iraupen-orduak ere.



Arrigorriagan, 2025eko urriaren 27an

Kontratuaren arduraduna
zuzendariordea

Sin: Estibaliz Alda

Laborategiko

Sin.: Elena Aspichueta